



### **Banaketa kanala**

Produktua edo zerbitzua kontsumitzaileengana helarazteko modu asko daude eta guretzako egokienak direnak erabiliko ditugu. Bi bezero mota daukagu, gazteak eta enpresak.

Hauengana hurbiltzeko diren bide egokienak, teknologia aldetik izango dira. Orduan, webgune bat egingo dugu, eta bertan hainbat adar egongo dira lan motaren arabera.

Gazte langileak, euren datu pertsonalak ipini beharko dute webgunean erregistratzeko.

Barruan daudenean, beraien gustuen araberako lanak aukeratu eta baita ere bakoitzaren izen abizenak ipini beharko dute enpresak beraiekin kontaktuan ipintzeko.

Langileak bilatzeko enpresek ere aukerak izango dituzte webgunean erregistratzeko.

Euren beharrak adierazi beharko dute, zelako langileak nahi duten eta zertarako.

Gaur egun jende askok ibiltzen ditu sare sozialak, beraz, hauen bidez zabalduko ditugu publizitateko atalak, kartelak eta slogana. Instagram, Twitter eta Facebooken, **Lanboro** izena jarriz, gure kontu ofizialetara joateko aukera izango duzue. Informazio guztia bertan aurkitu ahalko duzue.

